ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2018ko martxoaren 21a, asteazkena • 34 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## ARAMAIOKO UDALA

**Auzoetako jaiak antolatu eta burutzeagatik diru-laguntza deialdia. 2018ko ekitaldia**

Aramaioko Udalbatzak 2018/02/22an erabaki zuen, 2018ko auzoetako jaiak antolatu eta burutzeagatik diru-laguntza deialdia ateratzea, eranskineko testuaren arabera.

Aramaion, 2018ko martxoaren 12an

*Alkatea*
*LIERNI ALTUNA UGARTE*

**Eranskina**

2018 urtean auzoetako jaiak antolatzeko diru-laguntza deialdia egiten da 13.500 euroko kopurua banatu ahal izateko.

OINARRIAK

LEHENENGOA. Deialdiaren xedea:

Aurrekontuaren mugaren barruan, Aramaioko udalerriaren eremuan 2018ko auzoetako jaiak edo erromeriak antolatzeko diru-laguntzak ematea.

Programa honen xede diren laguntzetara bideratutako diru kopurua 13.500 eurokoa da.

BIGARRENA. Onuradunak:

Aramaioko auzo elkarteak (auzo alkateen bidez) eta Oletako Batzar Administratiboa.

HIRUGARRENA. Baldintzak:

Ez dira inolaz ere onartuko honako ekintzarik:

• Erlijio edo sexu arrazoiengatik baztertzen duenik, ezta ere edonolako kolektiborik baztertzen duenik.

• Ikuskizun, jai edo bestelako ekintzetan animaliek tratu txarrak jasaten duenik.

• Ingurugiroa kaltetzen dutenik.

• Euskararen erabilera lehenesten ez dutenik.

LAUGARRENA. Diru-laguntzen izaera:

Diru-laguntzak borondatezko izaera izango dute, beraz, Udalak ez du aurkezten diren eskakizun guztiei diru-laguntza emateko obligaziorik, nahiz eta deialdi honen oinarriak bete.

BOSTGARRENA. Diru-laguntzen zenbatekoa:

Diru-laguntzak programaren kostuaren eta kostu hori ordaintzeko dauden baliabideen araberakoa izango da, eta garrantzitsua da kontuan izatea sustatzaileak berak berezko baliabideak sor ditzakeela Herri Administrazioen bitartez. Hala ere, diru-laguntzaren zenbatekoa ezingo du inolaz ere gastuaren ehuneko 80koa baino gehiago izan.

Diru-laguntzak, aurkeztutako eskaeren balorazioaren menpe egongo dira. Balorazio hori, Kultura Batzordeak egingo du Kultura teknikariaren laguntzarekin. Azken honek, auzoek aurkeztutako diru-laguntzen txostena eta aurreko urteetan emandako diru-laguntzen erlazioa egingo du. Batzordeak, eskaeren eta txostenaren arabera, auzo bakoitzaren eskaeraren balorazioa egingo du.

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak (bakarrik udalarena zein beste entitate batzuen diru-laguntza edo laguntzekin batera) ezin du inolaz ere elkarte edo entitate onuradunak egingo duen jardueraren kostua gainditu.

Behin eskaera bakoitzaren balorazioa eginda, Kultura Batzordeak proposamena Alkateari luzatuko dio.

SEIGARRENA. Diru-laguntzen ordainketa:

Auzo bakoitzari dagokion zenbatekoa jakin eta gero, ordainketa banaketa honako hau izango da:

• Egitarauaren hasieran diru-laguntzaren ehuneko 75.

• Ehuneko 25, jardueraren txostena eta sortutako gastuen fakturak aurkezterakoan eta ontzat ematerakoan.

Hasieran emandako ehuneko 75a osorik ez bada justifikatzen, diru hori itzuli beharko dio udaletxera eta ez du gainerako ehuneko 25a jasoko.

Salbuespen moduan eta arrazoi justifikatuagatik diru-laguntzaren totala ordainketa bakarrean egiteko aukera dago, beti ere ordainagiriak eta justifikazio txostena entregatuz eta Kultura Batzordeak horrela proposatzen badu.

ZAZPIGARRENA. Eskaerak:

Diru-laguntza hauek lortzeko interesa duten Elkarteek edo norbanakoek honako hau aurkeztu beharko dute:

• Eskaera-orri ofiziala eta inprimakia. Jai bakoitzeko inprimaki bat bete beharko da.

• Harremanetarako pertsonaren helbide elektronikoa.

• Jaietako ekintzen programa.

• Gastuak eta diru sarrerak (Arabako Foru Aldundia, Vital Kutxa,edo bestelako entitateetatik lortutakoak, kuotak,...).

• Elkartearen kasuetan NIFaren fotokopia eta norbanakoen kasuan NANaren fotokopia.

• Gizarte Segurantzan eta Ogasuneko Diruzaintza Orokorrarekin dituen betebeharretan eguneratuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria; horren ordez zinpeko aitorpen bat aurkeztu ahal izango da, betebehar fiskal eta/edo zerga-betebeharrak beteta dituela dioena. Komenigarri irizten bada, bi ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dira.

Aurkeztutako eskabideek adierazi diren baldintzak betetzen ez badituzte, interesatuei ohartaraziko zaie akatsak hamar egunetako epean zuzendu ditzaten, eta honela egiten ez badute, eskaera artxibatu egingo da, eta diru-laguntza ukatutzat joko da.

ZORTZIGARRENA. Epea:

Aurkezteko bi epe desberdin egongo dira eta eskatzaile bakoitzak erabakiko du noiz aurkeztu:

— Ekainak 1

edo

— Irailak 3



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

BEDERATZIGARRENA. Justifikazioa eta ordainketa:

Diru-laguntza bi ordainketetan jasoko da:

• Ehuneko 75 eskaera ontzat hartzen denean.

• Gainerakoa, aurreikusitako ekintzak egin direla justifikatzen denean, honako hau aurkeztuz:

— Ekintzen memoria-likidazioa (eredua udaletxean eska daiteke).

— Likidazio ekonomikoa: zehaztu gastuak eta sarrerak (3. Erasnkina).

— Diruz lagundutako gastuen kopuruagatik egiaztagiri (fakturak) originalak edo fotokopia konpultsatuak. Fakturak edo egiaztagiriak onartuak izateko, ondorengoa jaso beharko dute gutxienez: Hornitzailearen identifikazio datuak, helbidea eta CIF/NIFa; eroslearen identifikazio datuak (diru-laguntza eskaera aurkezten duen elkarte edo pertsonaren berdina izan behar da), helbidea eta CIF/NIFa; kontzeptua, data, zenbatekoa; BEZa barne edo kanpo eta faktura zenbakia.

— Esku orrien aleak. Ale horietan Aramaioko Udalaren laguntzaren berri eman beharko da.

Justifikazioa, jaiak bukatu eta hilabeteko epea egongo da udal bulegoetan entregatzeko.

Ebazpena eta jakinarazpena egiteko epea sei hilabetekoa izango da, beti ere, abenduaren 30a baino lehen.

HAMAIKAGARRENA. Ulertzeko modua:

Oinarri hauek nola ulertu behar diren argi ez badago, Aramaioko Udaleko Kultur Batzordeak ebatziko du zalantza.

HAMABIGARRENA. Organo eskuduna:

Kultura Batzordea izango da espedientearen instrukzioa egingo duen organoa. Alkatea izango da diru-laguntzen ebazpena egingo duen organoa.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**ARAMAIOKO UDALA**
**ARABA**

**Esp. Kod./Cód. Exp.:** 2018EDLK0001
**Titularra/Titular:** KULTURA BATZORDEA

**Gaia/Asunto:** 2018ko auzoetako jaiak
**Hasiera data:** 201/02/07

## **I. ERANSKINA /** ANEXO I

## **AUZOETAKO JAIAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA ORRIA**

Hoja de solicitud de subvención para la organización de fiestas de barrios

## 2018 URTEKO DEIALDIA

Convocatoria del año 2018

**ESKATZAILEA/** SOLICITANTE

AUZO/ ELKARTE ESKATZAILEA:........................................................................................................................
Barrio/asociación solicitante:

IFK-IFZ: ……………………………………………………………………………………………………..………..

AUZO / ELKARTEAREN HELBIDEA:………………...………………………………………….……………..…….
Dirección de la asociación / barrio

**ORDEZKARIA** / Representante

AUZO ALKATEA/ PRESIDENTEA:…………………………………………...………………...…………..……..
Alcalde de barrio / presidente:

NA Zk./ Nº DNI:……………………………………………………………………………………..………...……..

HARREMANETARAKO PERTSONA, TELEFONOA ETA EMAILA / Persona de contacto, teléfono y email:

.................................................................................................................................................................

**DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA /** Pago de la subvención

TITULARRA / Titular:.................................................................................................................................
KONTU ZENBAKIA / Número de cuenta:...............................................................................................

..........................n, 20... (e)ko.......................................(a)ren .............(e)an
En ..........., a ...... de ............ de 20......

Sinadura / Firma:

**ARAMAIOKO UDALA**
**ARABA**

| | |
|---|---|
| **Esp. Kod./Cód. Exp.:** 2018EDLK0001 | **Gaia/Asunto:** 2018ko auzoetako jaiak |
| **Titularra/Titular:** KULTURA BATZORDEA | **Hasiera data:** 201/02/07 |

# 2018ko JAIETAKO PROGRAMA

AUZO/ ELKARTE ESKATZAILEA:........................................................................................

DATA:..........................................................................................................................................

| EKINTZAK | GASTUAK: |
|---|---|
| ♦ ........................................................................................ | ........................ |
| ♦ ........................................................................................ | ........................ |
| ♦ ........................................................................................ | ........................ |
| ♦ ........................................................................................ | ........................ |
| ♦ ........................................................................................ | ........................ |
| ♦ ........................................................................................ | ........................ |
| ♦ ........................................................................................ | ........................ |
| ♦ ........................................................................................ | ........................ |
| ♦ ........................................................................................ | ........................ |
| ♦ ........................................................................................ | ........................ |
| ♦ ........................................................................................ | ........................ |
| ♦ ........................................................................................ | ........................ |
| ♦ ........................................................................................ | ........................ |

GASTUAK GUZTIRA: ............................

DIRUSARRERAK:

- ♠ Bazkide kuotak: ........................................
- ♠ Taberna: ..........................
- ♠ Udaletxeko dirulaguntza ...................
- ♠ Beste erakundeetako dirulaguntzak (ZEIN?) ........................................
- ♠ Bestelakoak (zehaztu: adbz. Mus txapelketaren sarrerak,..)

  ..........................

  ..........................

  ..........................

DIRUSARRERAK GUZTIRA: .........................

DEFIZITA: ........................................

..........................,20 eko........................ren .............-n

Sinadura:

**ARAMAIOKO UDALA**
**ARABA**

**Esp. Kod./Cód. Exp.:** 2018EDLK0001
**Titularra/Titular:** KULTURA BATZORDEA

**Gaia/Asunto:** 2018ko auzoetako jaiak
**Hasiera data:** 201/02/07

# II. ERANSKINA / ANEXO II

AITORPENA/ DECLARACION

| **Eskatzaileak aitortzen du:** | **La persona solicitante declara:** |
| --- | --- |
| a. Ez dagoela kondenatua epai irmoaren bidez dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzera. | a. No haber sido condenada mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas. |
| b. Lehiaketa aitorpena ez duela eskatu, eta ez dutela kaudimengabe izendatu inongo prozeduratan, lehiaketan aitortua ez dela izan, eta kontu-hartze judizialen pean ez dagoela, eta Lehiaketa Legearen arabera ez dagoela desgaitua, lehiaketaren kalifikazio epaian ezarritako desgaitze epea bukatu ez denean. | b. No haber solicitado la declaración de concurso, no haber sido declarada insolvente en cualquier procedimiento, no hallarse declarada en concurso, no estar sujeta a intervención judicial o haber sido inhabilitada conforme a la Ley Concursal sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso. |
| c. Auziren batean errudun deklaratzea dela eta , ez duela Administrazioarekin egindako edozein kontraturen ebazpen irmorik bultzatu. | c. No haber dado lugar, por causa de la que hubiese sido declarada culpable, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración. |
| d. Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateen administratzaileak, edo beste pertsona juridikoen legezko ordezkaritza duten pertsonak ez daudela ondoren aipatzen diren legeek aurreikusitako suposamenduren batean: maiatzaren 11ko 12/1995 Legea, Nazioaren Gobernukideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko Goi-kargudunen Bateraezintasunari buruzkoa; abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileen Bateraezintasunei buruzkoa; ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa, Hauteskundeetarako Lege Orokorra, hautatutako karguak arautzen dituena, bertan adierazten diren terminoetan edo gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoa. | d. No estar incursa la persona física, las sociedades mercantiles o aquellas personas que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de la Ley 12/1995, de 11 de mayo, de Incompatibilidades de los Miembros del Gobierno de la Nación y de los Altos Cargos de la Administración General del Estado, de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, o tratarse de cualquiera de los cargos electivos regulados en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, en los términos establecidos en la misma o en la normativa autonómica que regule estas materias. |
| e. Indarrean dauden xedapenek ezarritako Zerga betebeharretan edo Seguritate Sozialarekikoetan eguneratua dagoela, araudiak ezartzen duen forman. | e. Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, en la forma que se determine reglamentariamente. |
| f. Ez duela egoitza fiskala araudiak paradisu fiscal gisa ezagutzen dun lurralde edo herrian. | f. No tener la residencia fiscal en un país o territorio calificado reglamentariamente como paraíso fiscal. |
| g. Dirulaguntza ordainketak direla eta betebeharren ordainketetan eguneratua dagoela, araudiak ezartzen dituen terminoetan | g. Hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones en los términos que reglamentariamente se determinen. |
| h. Ebazpen irmo batekin dirulaguntzak jasotzeko eskubidea kentzeko zigorrik ez izatea, Lege honen arabera edo Zerga Lege Orokorraren arabera. | h. No haber sido sancionada mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones según esta Ley o la Ley General Tributaria. |
| i. Ez dagoela, martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren, Elkartze Eskubidea Arautzen duenaren, 4.artikuluaren 5 eta 6 ataletan, aurreikusitako debeku arrazoien batean sartua. | i. No estar incursa en las causas de prohibición previstas en los apartados 5 y 6 del artículo 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, Reguladora del Derecho de Asociación. |
| j. Inskripzioaren administrazio prozedura eten egin zaion elkartea ez izatea, elkartearen eraketan ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak atzematen direlako 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikulua aplikatuz. | j. No ser una asociación respecto de la que se hubiera suspendido el procedimiento administrativo de inscripción por encontrarse indicios racionales de ilicitud penal, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 30.4 de la Ley Orgánica 1/2002. |

---------------------------------------------------------------------------------------

Eskaera-orri honetako datu pertsonalak eskatzailearen onespenaz jaso dira, tratamendu automatizatua izango dute eta ondorioz, Aramaioko Udal eta Erakunde Autonomoetako Informazio Sisteman sartuko dira. Datu horiek udal kudeaketarako soilik erabiliko dira, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoa) aurreikusitakoa gertatzen denean izan ezik, orduan beste administrazio publikoei edo beste batzuei laga edo jakinarazi ahal izango baitzaizkie. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea izango dute Udal bulegoetan.

Los datos personales contenidos en la presente instancia son recogidos bajo el consentimiento de la persona afectada y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Aramaio y sus Organismos Autónomos. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras administraciones públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Da-tos de Carácter Personal. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través de las oficinas municipales-

## BAIMENAK / CONSENTIMIENTOS

Baimena ematen diot, deialdi hau kudeatzen duen organoari, bide telematikoen bitartez edo eskuragarri dauden bideen bitartez administrazio eskudunean honako hauek egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko:
*Autorizo al órgano gestor de esta convocatoria a la comprobación, constancia o verificación en la Administración competente por medios telemáticos o en su caso, por los medios que estén disponibles:*

Zerga betebeharrak egunean edukitzea/ *Cumplimiento de las obligaciones tributarias*: ☐Bai / *Sí* ☐ Ez / *No*
Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea/ *Cumplimiento de las obligaciones de la Seguridad Social*: ☐Bai / *Sí* ☐ Ez / *No*

........................(e)n, .................... ........................................ Sinadura/ Firma



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**ARAMAIOKO UDALA**
**ARABA**

**Esp. Kod./Cód. Exp.:** 2018EDLK0001
**Titularra/Titular:** KULTURA BATZORDEA
**Gaia/Asunto:** 2018ko auzoetako jaiak
**Hasiera data:** 201/02/07

## **III. ERANSKINA /** ANEXO III

# 2018ko JAIETAKO JUSTIFIKAZIOA

AUZO/ ELKARTE ESKATZAILEA:....................................................................................................

DATA:........................................................................................................................................................

| EKINTZAK | GASTUAK: |
| --- | --- |
| ♦ .................................................................................................... | ................ |
| ♦ .................................................................................................... | ................ |
| ♦ .................................................................................................... | ................ |
| ♦ .................................................................................................... | ................ |
| ♦ .................................................................................................... | ................ |
| ♦ .................................................................................................... | ................ |
| ♦ .................................................................................................... | ................ |
| ♦ .................................................................................................... | ................ |
| ♦ .................................................................................................... | ................ |
| ♦ .................................................................................................... | ................ |
| ♦ .................................................................................................... | ................ |
| ♦ .................................................................................................... | ................ |

GASTUAK GUZTIRA: ............................

DIRUSARRERAK:

- ♠ Bazkide kuotak: ....................................
- ♠ Taberna: ....................................
- ♠ Udaletxeko dirulaguntza: ....................
- ♠ Beste erakundeetako dirulaguntzak (ZEIN?): ....................................
- ♠ Bestelakoak (zehaztu: adbz. Mus txapelketaren sarrerak,..)

........................................

........................................

........................ DIRUSARRERAK GUZTIRA: ........................

DEFIZITA: ....................................

..........................,20.. eko........................ren .............-n

Sinadura:

**ARAMAIOKO UDALA**
**ARABA**

**Esp. Kod./Cód. Exp.:** 2018EDLK0001 | **Gaia/Asunto:** 2018ko auzoetako jaiak
**Titularra/Titular:** KULTURA BATZORDEA | **Hasiera data:** 201/02/07

## JUSTIFIKAZIO KONTUA / *JUSTIFICACIÓN*

**ESKATZAILEA/** SOLICITANTE

AUZO/ ELKARTE ESKATZAILEA:.............................................................................................................................
Barrio/asociación solicitante:

IFK-IFZ: ………………………………………………………………………………………………….………….

AUZO / ELKARTEAREN HELBIDEA:………………...……………………………………….……………..…….
Dirección de la asociación / barrio

**ORDEZKARIA** / Representante

AUZO ALKATEA/ PRESIDENTEA:……………………………………………...………………..…………..……..
Alcalde de barrio / presidente:

NA Zk./ Nº DNI:……………………………………………………………………………………..…………..……..

HARREMANETARAKO PERTSONA, TELEFONOA ETA EMAILA / Persona de contacto, teléfono y email:

.........................................................................................................................................................................

| **3. DIRULAGUNTZAREN DATUAK** / *DATOS DE LA SUBVENCIÓN* | |
|---|---|
| DIRULAGUNTZA PROGRAMA / *PROGRAMA DE AYUDA* | |
| DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA/Importe de la subvención | |

**Goian adierazitako erakundearen ordezkariak, hori ordezkatuz ZIURTATZEN DU /** *El representante de la entidad arriba indicada, en su representación CERTIFICA:*

Jasotako dirulaguntzaren xedea bete dela, goian esandako datuak egiazkoak direla, jarduera egiteko erabili dela dirulaguntza, eta ezarritako epean egin dela jarduera. Gainera, egindako gastuak ordaintzeko betebeharra aitortu da erakundearen kontabilitatean. Gastuak beheko taulan zehazten dira.

*Se ha cumplido el objeto de la subvención recibida, los datos arriba indicados son ciertos, la subvención se ha utilizado para la actividad y en las fechas señaladas. Además, en la contabilidad de la entidad se ha anotado el pago de los gastos. Los gastos se indican en la tabla de abajo.*

| **Fakturaren zk. eta data** *Nº y fecha de la factura* | **Hornitzailea/** *Proveedor* | **Kontzeptua /** *Concepto* | **Zenbatekoa /** *Importe* **(1)** | **Ordainketa data(behar denean) /** *Fecha de pago (si es necesario)* |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

Jatorrizko fakturak edo agiri baliokideak erantsi direla, banaka edo gastu kontzeptuen arabera multzokatuta, baita horiek ordaindu izanaren frogagiriak ere.

*Se adjuntan facturas originales o compulsadas, individuales o agrupadas por concepto, así como el justificante de pago.*

........ :(e)n, 2017ko ........ :aren ...... :(e)an    Sinatuta



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2018.03.21 06:28:40 Z